



Koko-dantzak

**Dena prest Kezkak larunbatean, urtarrilaren 26an,
egingo dituen Koko-eske eta koko-dantzetarako**

Aratuste asteburuaren aurreko larunbatean, 2008ko urtarrilaren 26ean, koko-dantzari eta koko-marru konpartsa bat plazaratuko du Kezka dantza taldeak eta baserriz-baserri Arrate inguruko hainbat txoko bisitatuko ditu. Goizean goiz abiatuta baserri bakoitzaren aurrean dantza emanaldia egin, koko-eskea egin eta modu horretara hainbat baserri bisitatuko ditu konpartsak egun osoz. Arratsaldean Eibarko kaleetara iritsiko da Koko-dantzari eta koko-marruen konpartsa, eta bertan ibiliko da aratusteez ohikoa duten jai giroan musika eta dantzarekin.

Koko-dantzekin Arrateko dantzekin abiatutako bidean sakontzea da asmoa, egutegiaren beste muturrean gure herriko dantza tradizioak osatzen jarraitzeko asmo. Juan Antonio Urbeltz folklore ikertzaileak eta gure maisuak erakutsi digunez, udako dantza tradizioek beren kide simetrikoa izan ohi dute neguan, eta Arrateko dantzen neguko ordaina aratusteetan egingo ditugun Koko-dantzak izango dira.

Arketipoekin jolasean

Inauteriak, aratusteak, karnabalak mundu osoan ospatzen diren jaiak badira ere, Europako mendebaldean barrena, neguko jaien bukaera markatzen duten festa hauek ospatzeko modu berezi eta zahar bat gorde da. Aratusteak gure kulturaren erroetara garamatzaten arketipo interesgarriak beteta daude. Festa-modu tradizionala eta bere pertsonaia prototipikoak berregin nahi izan ditugu koko-dantzen aratusterako. Eibarren plazaratuko ditugun koko-dantzari eta koko-marruak bertakoak dira, bereziak eta nortasun propioa dutenak, baina aldi berean inauteriaren izpiritu tradizional eta europarrean oinarrituak eta testuinguru horretan bete-betean txertatzen direnak.

Eibarko aratusteen inguruan erabili izan diren zenbait ohituretatik jaso ditugu su berria pizteko erabiliko ditugun txinpartak. Ohitura biziak ez ditugu horrenbeste ezagutu, baina Eibarko Aratusteen inguruan Toribio Etxeberriak eta Juan San Martinek bildutakoek balio izan digute puzzle berrirako pieza zahar batzuk ere balio zezaketela konturatzeko.



*Koko-moko
Zaria bete moko,
Gibel-gibel
Afarittarako,
Dirua baneuka
Patrikarako.*

Barriemoillia: Rosario Alzerreka.
Mikel Sangroniz, Mireia Ozerinjauregi
Eibarko Kantuak. Ego Ibarra, Eibarko Udala,
2001.

Koko-jantzi

Koko-jantzi, mozorrotze kontzeptuaren beraren inguruko kezka bat dago proposamen honen abiapuntuan. Inauterien bilakaerak eta merkaturatzeak karnabalaren irudi berri bat zabaldu eta sustraitu du XX. mendean. Mozorrotze kontzeptuaren aldaera semantiko bat sendotu eta nagusitu da. Koko-jantzteaz hitzegiterakoan, "zertaz?" galderarekin zilbor-estez lotuta agertuko zaigu. "*Indioz mozorrotuko naiz*", "*zertaz koko-jantziko zara?*".

Horrekin batera, koko-jantzia bera egungo erreferentzia kultural eta mediatikoekin erabat lotuta agertuko zaigu. Zertaz mozorrotu garen identifikatzea behar-beharrezkoa gertatzen da, eta identifikazio horren arrakastan dago mozorroaren arrakastaren gakoa. Inauteri tradizioaletan ordea mozorroa zerbait nahasiago eta indefinituago bezala agertzeaz gain, marko erreferentzial desberdina erabiltzen du, eta iruditeria propioak indar handiz funtzionatzen du. Ez dago "zerbaitetaz" mozorrotu beharrik. Mozorrotu egingo garela esate hutsa nahikoa adierazgarri da. Mozorrotzea, koko-jantzea, eguneroko gure irudia uxatu eta gure aurpegia ezkutatzea da, nortasun desberdin bat hartzea, baina nortasun horren izaera mozorro edo koko-jantzi kontzeptuak berak definitzen du. Mozorrotuta gaudela esatea nahiko da; "zertaz" galderak ez du erantzunik kontestu horretan.

Koko-jantze tradizional horrek darabilen marko erreferentzial horretan badaude maiz agertzen diren ezaugarri batzuk.

- Naturarekiko lotura
- Piztiarikiko joera
- Groteskoaren lilura
- Bortizkeria
- Baltzittutzearen sinpletasuna

Zenbait mozorro teknikoki konplexuak badira ere sinpletasunaren aldarri bat ere ageri zaigu mozorrotze tradizionalan. Baltzittutzearen ideiak oso ongi islatzen du sinpletasun hori. Ez dago mozorro sofistikuak bilatu beharrik, aurpegia belzte nahikoa da mozorrotzeko.



*“Aratostietan nahikua da arpegixa
baltzittutzia koko agertzeko.”*

Toribio Etxeberria

Eta aldi berean koko-janztearen oinarrizko ezaugarria gogorarazten digu: aurpegia ezkutatzea, nortasuna ezkutatzea, eta karnabaletarako identitate berri bat sortu eta harekin jokatzeko.

Koko-eskean: kuestazioak neguko festetan

San Martinetatik hasita Karnabaletaraino, neguko jaietan ohitura izaten da kuadrillatan baserriz baserri ibiltzea. Batzuk kantuan ibiltzen dira (Olentzero, San Nicolas-ko obispilloaren jaietan eta Santa Agedan adibidez), eta beste batzuk dantzan (karnabaletan esaterako). Kantatu edo dantza egin ondoren, baserritarrek *zeozer* ematen dute. Baserriko edo ortuko zerbait izaten da gehienetan. “Aginaldoa”, “hamarrekoa”, “Puska biltzea”, “oilasko biltzea”, “arrautze-arrautze”, “santa eskea” eta horrelako izenekin ezagutzen dira erronda hauek. Eibarren egingo duguna *Koko-eskea* izango da.

Beraz, baserri bakoitzaren aurrera joan eta dantza bat egingo dugu. Ondoren, oterra pasatuko dugu eta baserritarrek zerbait eman nahi izanez gero pozik jasoko dogu. "Eskea" sinbolikoa da, eta ez dago inongo obligaziorik ezer emateko. Truke txiki bat baino ez dugu proposatzen, guk dantza egin eta *zeozer* eman nahi izanez gero ondo, eta bestela ere bai. Ezer ematekotan etxeko produkturen bat izan daiteke egokiena: arrautza batzuk, porru txortaren bat, aza bat, oilasko bat, txorizoa, txerrikiak,...

Koko-jantzi, koko-eguna eta koko-abarrekuak

Eibarren mozorrotzeari koko-janztea esan izan zaio. Toribio Etxebarriak karnabalak, koko-jantzi eta koko-marruen inguruan jaso zituen aipamenetako batzuk eta Eibarko hiztegian bildutako beste batzuk ekarri ditugu hona. Horietako batzuk agertuko dira datorren larunbatean aterako ditugun koko-dantzetan.

KOKO-EGUNA. Carnaval. *Aratoste eguna*
¿Koko-eguna al da ba gaur orretara janzteko?

KOKO JANTZI. disfrazar(se).
Bazoiak aurten koko janztera? (TE). / Karnabal aurreko astian, eguenian, Eguen Zuri izaten zan. [...]. Jentziak biharra eitten eban, baiña gurasuei gustatzen jakuen umiak jantzia basarritar, ta antxiñako andra zaharren zerekin. Ta tanboliña arratsalde guztian joten egoten zan, ta dantzan. [...] Koko jantzitta, haixe izaten zan koko jantzia. (TZ).

KOKO-JANTZIXA. Disfraz.
Badira urte guztian koko-jantzixa erabiltzen dabena. [Hay quienes llevan disfraz todo



el año.]

KOKO-MOKO JANTZI (Ad.) disfrazar(se). Sin. koko jantzi.

KOKO-MARRUA. Ente de fantasía con que se asusta a los niños.

¡Ixildu zaittez, Koko-marruak eruango zaittu ba bestela! ¡ [Calla, que si no te va a llevara el *koko-marro*.]

KOKUA. 1. Se dice en primera acepción de los insectos, y por extensión de todo ser viviente de reducidas dimensiones. *Kokuak dira milla eta milla bidar arraza geixago, friztixa azixak baño.* 2. Persona disfrazada o con indumento extravagante. *Oingo urtian koko gitxi ibili da Aratostietan.* [Este año ha habido pocos disfrazados.]

MAMARRUA. Umiak bildurtzeko erabiltzen dan personajia. [El coco con que se asusta a los niños.] *¡Ixildu zaittez, mamarrua dator bestela!* [¡Cállate, que sino viene el coco!]

Makilla-dantzan

*Aratostietarako, makilla dantzia
ikasten dabiz gazte mordo bat.*

Toribio Etxeberria

Koko-dantza bat, dantza nagusi bat, egingo du koko-dantzari eta koko-marru taldeak egun osoan zehar, behin eta berriz. Makilla-dantza bat izango da. Fox-trot etan arin<-arin erritmora dantzatuko den makill-dantzia. Horrekin batera, biribilketak, fandangoak, arin-arinak, balsak eta pasodobleak ere dantzatzeko aukera egon daiteke, baina koko-dantza, makilla-dantza izango da behin eta berriz errepikatuko dena.

Baserriz baserriko ibilbidean Eibarko bi trikitilari ezagun, Adolfo Jainaga eta Unai Narbaiza arituko dira dantzei musika jartzen. Kalera jaitsitakoan, Elgoibarko Mauxitxa txarangak hartuko die erreleboa.

Koko-dantzariak eta koko-marruak

Aratusteen eredu tradizionaletan errepikatzen diren arketipoetatik abiatuta koko-dantzari eta koko-marru taldeak osatzen ari gara. Pertsonaia gehienak zehaztuta badaude ere, bakoitzaren gorputzea oraintxe ari da egosten eta datozen asteetan hezur-mamituko direla espero dugu.

Koko-dantzariak izango dira makilla-dantza egitearen arduradunak. Arrateko Amaren dantzariak dira funtsean koko-dantzariak, baina jantziak, eskuak eta oinak



karnabaletarako egokitu dituzte. Zortzi koko-dantzari arituko dira makilla-dantzan buruzagi baten gidaritzapean.

Koko-marruen taldea irekia bezain nahasia da eta inauterietan ohikoa den indisziplina kaotikoarekin funtzionatzen dutenez zaila izango da koko-eskea hasi arte zenbat eta zein koko-marru izango diren jakitea. Orain arte Hartza eta Maria, Aixerixak, Masustak, Mamarruak, Burburixuak, Martin perratzailea, Kattalin eta Manuela, Batista kojua eta Arraguetako Ama-birjina, Don Eusebio eta Petra, eta Sasikartiak agertu dute borondatea. Ikusteke dago urtarrilaren 26an denak agertuko diren...

Aratusteak 2008, inoiz baino goizago

Aurten karnabalak goiz, oso goiz datoz, toka daitekeen data goiztiarrenetako batean. Eguen Zuri urtarrilean dator, urtarrilaren 31an. Inoiz baino azkarrago prestatu behar dira mozorro eta dantzak.

Zergatik dira hain goiz aurten inauteriak? Aratusteen data nola jartzen den kontuan hartu behar da horretarako. Lehenengo Aste Santuko igandea noiz den jakin behar da eta horren arabera jakingo dugu noiz diren inauteriak. Hona hemen inauterietako data kalkulatzeko prozesua:

1. Udaberriko lehenengo ilargi betea noiz izango de lokalizatu.
2. Udaberriko lehenengo ilargi betearen ondoko lehen igandea identifikatu. Igande hori, Aste Santuko igandea, alegia, Pazko Igandea izango da.
3. Pazko Igandean bukatzen da garizuma, alegia 40 eguneko baraualdi kristaua. Garizuma Hausterre egunean hasten da. Beraz, 40 egun atzeraka kontatu behar ditugu Hausterre eguna lokalizatzeko. Baina erne, kontaketa horretan ez dira igandeak kontuan hartzen!
4. Hausterre eguna da inauterien ondoko lehen eguna, asteazkena, beraz, bezpera Inaute Asteartea izango da, eta aurreko ostegunean hasita egun horretara dira inauterietako egun "klasikoak".

Eta aurten oso goiz tokatu da... Bai, eta kostako da berriz horren goiz tokatzea tarte luze batean. Bi gauza gertatu behar dira data horren goiztiarra gertatzeko, martxoaren 21aren ondoren ilargi betea berehala tokatzea eta ilargi betea igandetik hurbil tokatzea, hau da, ostiral edo larunbatean, eta ez adibidez asteartean. Eta aurten biak tokatu dira:

1. Udaberriko lehen ilargi betea noiz da 2008an? Ba hain justu martxoaren 21ean bertan! Lehenengo egun posiblean.
2. Eta zein egun da? Ba ostirala! Beraz, Aste Santua martxoaren 23an, da toka daitekeen data goiztiarrenetako batean.



Ondorioz, inauteriak ere horrela datoz, inoiz baino goizago.

Eta koko-dantzak astebete lehenago

Eta aratusteak inoiz baino goizago etortzea gutxi balitz, Koko-dantzak karnabalen asteburu “ofiziala” baino astebete lehenago egingo ditugu. Inauteri tradizionaletan nahiko ohikoa izaten da hau. Inauteri aste ofizialaren aurretik ospatzen dira hainbat karnabal ezagun. Adibidez, Leitzan urtarrileko bigarren asteburuan ospatzen dira, Ituren eta Zubietan urtarrileko hirugarren asteburuan, eta Lapurdiko hainbat herritan aurreko bi, hiru edo lau asteburuetan aritzen dira inauteri dantzak eta puska-biltzeak egiten.

Eibarren badago aratusteak ospatzeko ohitura sustraitu bat, eta eguen zurirekin hasi eta martitzeneko sardinaren ehorzketara bitartean egitaraua zabal bat izaten da. Gure asmoa ez zen orain egiten diren ekitaldiei enbarazurik egitea, eta horregatik, koko-eskea eta koko-dantzak, aratusteen asteburu ofizialaren aurreko asteburuan, larunbatean egingo ditugu. Aurten, urtarrilaren 26an egokitu da egun hori, eta estreinaldirako beti larri ibiltzea ohikoa izaten bada, aurten horren azkar datorrenez oraindik estuago ibiliko gara.

Ibilbidea eta ordutegia

Gure asmoa Eibarko baserri gehienetara iristea da, baina aurten lehenengo urtea izanik, eta bideak ikasten joateko, baserri sorta bat baino ez dugu egingo. Arrateko dantzen neguko aurpegia dira koko-dantzak, eta beraz, Arrate, eta bere inguruko baserriak izango dira aurten bisitatuko ditugunak. Datorren urterako saiaturako gara baserri gehiagora iristeko modua egiten. Aurten, lehenengo urtea denez eta bidea ere ikasi behar dogunez, multzo batera baino ez da iritsiko koko-eskea. Arrate, Mandiola eta Gorostako baserri batzutan ibiliko gera.

Ordutegi hau erabat gutxi-gora-beherakoa da. Lehenengo urtea izateran zaila baita jakitea zenbat denbora beharko dugun ibilbidea osatzen.

8:30 Merkatu plaza berrian (Rialton) lehen emanalditxoa

9:00etatik aurrera baserriak: Barrundi, Arexitaigoikoa, Narru (Kutunegietabarrenengoa), Guenetxe (Kutunegietaguenengoa), Argiñao (2), Untzeta, Sanjoangoa, Barrenetxe, Zelaikoa, Arizmendi, Arizmendiguena eta Gaztelu.

11:00etatik aurrera: Iñarre, San Martin, Mendigoiti, Lezeta, Asola-berri eta Sumendixa. Azitaingo Poligonora irten, eta Lazareto, Altzubarren eta Lezetabeletxe. Segidan, Arrateruntz joko dugu eta bidean Biriñao, Eskaregi-errota, Maapila, Itsaso eta Mugitzabarri pasa ondoren, Arraten bertan Kantabria (Arratebekoetxe) aurrean egingo dugu goiz parteko azken koko-dantza.



Kezka Dantza Taldea Eibarko Klub Deportiboa

15.00etatik aurrera: Zestero, Gorostagainekoa, Gorostabeña, Gorostozpikoa, Iturrao, Mandiolagainekoa eta Mandiolaazpikoa.

Eguna iluntzen hasten denerako kalera jaitsiko da koko-dantzari eta koko-marruen konpartsa, eta 19.00etatik 21.30etara Eibarko erdiguneko kaleetan ibiliko da aratusteetako talde berezi hau.

Urtarrilak 26, larunbata

- 9:00-18:00 KOKO-DANTZAK eta KOKO-ESKEA Arrate, Mandiola eta Gorostako baserrietan Kezka dantza taldeko koko-dantzari eta koko-marruekin, eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin.
- 19:00-20:00 KOKO-DANTZAK Eibarko erdiguneko kaleetan Kezka dantza taldeko koko-dantzari eta koko-marruekin, eta Mauxitxa txarangarekin.